

AURKEZPENA

Argala, altua eta zuria izatea gaur egungo gizarteak ezartzen dituen edertasun-kanonen parte dira, historian zehar emakumeengan eragin handiagoa izan dutenak, nahiz eta gizonengan ere eragina izan. Edertasun kanonak betidanik egon izan dira eta belaunaldiz belaunaldi aldatuz joan dira, hala ere, badaude hainbat elementu iraunkorrak direnak, eta hauek, askotan gure haurtzaroko markatu dute. Hala nola, hain ospetsuak diren *Barbie* panpinak. Nork ez du *Barbie* ezagutzen?

Barbie enpresa eta haren panpinak, belaunaldi askoren haurtzaroko erreferente izan dira, eta ondorioz, negozio honen doktrina eta idealak umeen pentsamenduan sartu dituzte. *Barbie* panpinen ezaugarriak edukitzea, adibidez, zuria, argala eta ile luzea izatea, ume askoren haurtzaroko helburu eta ametsa izan da.



Modu honetan, panpin hauen itxura gizartean gorputz perfektu edo normatibo bezela ezartzea lortu dute, eta beste gorputz edo estetika mota guztiak baztertu egin ohi dira, ez baitaude ondo ikusita.

Gu Martina Luqui, Garazi Elorza, Aitor Ruiz de Alegria eta Nesta Arrieta gara, Urretxu-Zumarraga Ikastolako 1. batxilergoko ikasleak. Azaldutako gizartean dagoen arazo honi aurre egin behar dela ikusi dugu, eta, horretarako, gure Start Innovako proiektuaren bidez, *Lera Style* aurkeztu nahi dugu, *Barbie*-ak birdiseinatzen dituen enpresa. Honekin, gure helburua gizartean existitzen diren beste gorputzei, arrazei, desgaitasun fisikoei... ikusgarritasuna ematea da, eta bide batez, jasaten duten bazterketa soziala ekiditea.

Gure proiektuaren helburua ez da soilik panpin berri batzuk sortzea, baizik eta, gure gaur egungo gizartean nagusi den pentsamendu hori aldatzen saiatzea. Gure ustez, horrela, umeek panpin desberdinekin jolasteko aukera izango dute eta jostailu hauen bidez, gorputz guztiak guztiz baliozkoak direla ulertuko dute, altua ala baxua, argalak ala lodiak besteak beste.

